Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5105

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, paper-makina berriaren (MP6) proiekturako ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena egiten, eta egunkari-paperaren fabrikazio-jarduerarako eta aldibereko ekoizpenaren instalaziorako ingurumeneko baimen bateratua esleitzen duena, Errenteriako (Gipuzkoa) udalerrian eta Papresa SA enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2002ko abenduaren 23an, Papresa SA enpresak Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Errenteriako (Gipuzkoa) udalerrian paperaren fabrikazio-jarduerarako. Eskaerarekin batera, Errenteriako Udalak 2002ko abenduaren 9an emandako hirigintzako aldeko txostena eta honako dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen:

– Jarduera zabaltzeko proiektua. Tinta-kentze lerro berria (2002ko abendua).

– 6. Paper-Makina Berriaren Ingurumeneko Baimen Bateraturako proiektua (2003ko urria).

– Ingurumenaren Gaineko Eraginaren azterketa (2004ko uztaila).

2004ko abenduaren 2an, Papresa SA enpresak fabrika osoari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren izapidetzea abiatzea eskatu zuen, eta era berean, ordura arte izapidetutako jarduera-egitasmoen espedientea eranstea eskatu zuen.

Geroago, 2006ko urtarrilaren 9an, enpresak proiektuaren laburpen ez-teknikoa bidali zuen.

Erreferentzia-baimena eskatzeko orduan, Papresa SA enpresak, besteak beste, honako baimenak zituen: ore eta egunkari-paper fabrika zabaltzeko jarduera gauzatzeko udal-baimena, 1962ko urriaren 11koa; paper-orea ekoizteko jarduera sailkaturako baimena, 1999ko azaroaren 22koa; eta paper-orea ekoizteko lerro bat instalatzeko jarduera sailkatua zabaltzeko baimena, 2000ko abenduaren 29koa. Halaber, enpresa sustatzaileak Añarbeko Uren Mankomunitatearen saneamendusarera isurketak egiteko zegozkion baimenak, 2003ko irailaren 29koak, eta tinta-kentzearen lohi-isurketak San Markos Mankomunitateak kudeatutako kolektore-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

5105

RESOLUCIÓN de 25 de abril de 2008 del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula declaración de impacto ambiental para el proyecto de nueva máquina de papel (MP6) y se concede autorización ambiental integrada para la actividad de fabricación de papel prensa e instalación de cogeneración y, promovida por Papresa, S.A. en el término municipal de Errenteria (Gipuzkoa).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 23 de diciembre de 2002, Papresa, S.A., solicitó ante el entonces Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fabricación de papel en el municipio de Errenteria (Gipuzkoa). La solicitud se acompañaba del informe urbanístico favorable del Ayuntamiento de Errenteria, de fecha 9 de diciembre de 2002, y de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto de ampliación de actividad. Nueva línea de destintado (diciembre 2002).

– Proyecto de Autorización Ambiental Integrada de la Nueva Máquina de Papel N.º 6 (octubre 2003).

– Estudio de Impacto Ambiental (julio 2004).

El 2 de diciembre de 2004 Papresa, S.A. solicita que se inicie la tramitación de la autorización ambiental integrada de la fábrica completa, solicitando la incorporación al expediente de los proyectos de actividad tramitados hasta la fecha.

Posteriormente, con fecha 9 de enero de 2006, la empresa remite resumen no técnico del proyecto.

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Papresa, S.A. tenía, entre otras, licencia municipal para el ejercicio de la actividad de ampliación de la fábrica de pasta y papel prensa, de fecha de 11 de octubre de 1962, licencia de actividad clasificada de producción de pasta de papel, de fecha de 22 de noviembre de 1999, y licencia de apertura de actividad clasificada de instalación de una línea de producción de pasta de papel, de fecha de 29 de diciembre de 2000. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a la red de saneamiento de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, de fecha de 29 de

ra egiteko baimenak zituen. Industria-hondakin geldoen Erregistroan eman zuen izena enpresak, hondakinen inguruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

2004ko maiatzaren 13an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez.

2005eko martxoaren 8an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko otsailaren 5ean osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko maiatzaren 31n emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri ziren 30 egun balioduneko epean, Papresa SA enpresak sustatutako proiektua eta proiektu horrek ingurumenaren gainean duen eraginaren azterlana, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko uztailaren 2an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko uztailaren 8an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, instalazioek eragindako zarataren inguruko alegazioidazki bat aurkeztu zela egiaztatu zen. Laburbilduta jasotzen du I. eranskinak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2007ko irailaren 4an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Errenteriako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Añarbeko Uren Mankomunitateari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 8an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Papresa SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpenaren-Proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko

septiembre de 2003, y de vertido de fangos de destintado al colector gestionado por la Mancomunidad de San Marcos. La empresa había procedido a su inscripción en el Registro de productores de residuos industriales inertes, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de residuos.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 13 de mayo de 2004 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el Órgano Ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto y del estudio de impacto ambiental.

Con fecha 8 de marzo de 2005, el Órgano Ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 5 de febrero de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 31 de mayo de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto y el estudio de impacto ambiental promovido por Papresa, S.A. en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ambas con fecha de 2 de julio de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 8 de julio de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que se ha presentado un excrito de alegaciones en relación con el ruido emitido por las instalaciones que de forma resumida se recoge en el anexo I.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 4 de septiembre de 2007 informe al Ayuntamiento de Errenteria, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y a la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 8 de abril de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Papresa, S.A. incorporando la Propuesta de Resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema

sistema integratu bat ezarriz, eta ingurumen osoaren babes maila altua lortzeko helburuarekin.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren, 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Papresa SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; kolektorera isurketak egiteko baimena; ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeari dagozkionak.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplika dakizkiekeen gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Papresa SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean

de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el Anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Papresa, S.A. tales autorizaciones se circunscriben a la de producción de residuos peligrosos y no peligrosos, vertido a colector y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y a la materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas previsto en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Papresa, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, Ge-

sartu dira Errenteriako Udalaren eta Osasun Sailaren txostenak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa behar dute derrigorrez, Legearen 1. eranskinean jasota egon eta Euskal Autonomia Erkidegoan burutu nahi diren plan eta proiektu publiko zein pribatuek. Prozedura hori ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenarekin amaitzen da, direlako proiektuak gauzatzeko edo, behar denean, baimentzeko, emango den ebazpenaren aurretik egingo dena.

Era berean, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11.4 artikulua aplikatuz, autonomia erkidegoek ahaleginak egingo dituzte ingurumeneko baimen bateratuaren barruan dauden ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko Erkidegoko araudian ageri diren jarduerak edota beste figura batzuk sartzeko, betiere, horrelakorik eska badaiteke, eta horretarako eskumena autonomia erkidegoari badagokio.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen aurreikuspenak betez, Ingurumen Organoak neurriak hartu ditu ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio arloko jarduerak ingurumeneko baimen bateratuko prozeduraren barruan txertatzeko. Alde horretatik, prozedura horren izapideetan proiektuak izan ditzakeen ondorio guztiak modu integratu batean aztertu dira, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren eta uztailaren 1eko 16/2002 Legean jasotako baldintza teknikoen ikuspegitik, proiektuaren bideragarritasuna zehazteko. Integrazio hori garbi islatzen da ingurumeneko baimen bateratua emateko Ebazpen-Proposamenaren aurretik proiektuaren gainean egiten den balioespenean. I Proposamenean bezala, ebazpen honetan sartuta dago aipatutako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozesua. Horretarako, proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren aldeko adierazpena egiten du bere lehenengo atalean, eta, ingurumen ondorioetarako soilik, aukeratutako kokapenean proiektua bideragarria dela aipatzen du; proiektua zein baldintzatan gauzatu behar den ere ezartzen du, uztailaren 1eko 16/2002 Legea aplikatuz ezarriko zaizkion neurri zuzentzaileekin bat.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste

neral de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Errenteria y del Departamento de Sanidad.

Por otro lado y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, deben someterse preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación de impacto ambiental los planes y proyectos, bien fueran públicos o privados, que encontrándose recogidos en el anexo 1 de la Ley, se pretendan llevar a cabo en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procedimiento que culmina con una declaración de impacto ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

En aplicación, asimismo, de lo dispuesto en el artículo 11.4 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, las Comunidades Autónomas dispondrán lo necesario para posibilitar la inclusión en el procedimiento de otorgamiento de la autorización ambiental integrada de las actuaciones en materia de evaluación de impacto ambiental u otras figuras de evaluación de impacto ambiental previstas en la normativa autonómica, cuando así sea exigible y la competencia para ello sea de la Comunidad Autónoma.

En cumplimiento de las previsiones contempladas en la Ley 16/2002, de 1 de julio, el Órgano Ambiental ha adoptado las medidas encaminadas a una efectiva inclusión de las actuaciones en materia de evaluación de impacto ambiental en el procedimiento de autorización ambiental integrada. En este sentido, en los trámites del citado procedimiento se ha considerado de forma integrada el conjunto de los posibles impactos derivados del proyecto en orden a determinar la viabilidad del mismo desde la perspectiva de la normativa de evaluación de impacto ambiental y la referida al resto de las prescripciones medioambientales contenidas en la Ley 16/2002, de 1 de julio. Dicha integración encuentra nuevamente su reflejo en la valoración global del proyecto que antecede a la Propuesta de Resolución de otorgamiento de autorización ambiental integrada. La presente resolución, al igual que lo hizo la propuesta, viene a incorporar el resultado del mentado proceso de evaluación de impacto ambiental a su contenido a través de la formulación, en su apartado Primero, de una declaración de impacto ambiental de carácter favorable que viene a pronunciarse, a los solos efectos ambientales, sobre la viabilidad del proyecto en la ubicación elegida, fijando las condiciones en las que el mismo debe realizarse, condiciones que vienen a formar un todo coherente con las medidas correctoras que deben imponerse al citado proyecto como consecuencia de la concreta aplicación de la Ley 16/2002, de 1 de julio.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condicio-

baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2001eko abenduko BREF «Reference Document on Best Available Techniques in the Pulp and Paper Industry» eta 2006ko uztaileko «Reference Document on Best Available Techniques for Large Combustion Plants» txostenen edukiak kontuan hartu dira.

Horrez gain, kasu honetan aplikagarria da 2004ko martxoaren 12ko 430/2004 Errege Dekretua ere, errekuntza-instalazio handietako zenbait emisio atmosferara isurtzea mugatu eta petrolio-findegiek atmosferara egindako emisioak kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituena.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Papresa SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da eta organo hau da ingurumeneko baimen integratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta 2005ko urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 7an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko erregelamendua onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplika daitekeen gainerako araudia,

nes para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido de los documentos BREF «Reference Document on Best Available Techniques in the Pulp and Paper Industry», de fecha diciembre de 2001, y «Reference Document on Best Available Techniques for Large Combustión Plants», de fecha julio de 2006, de la Comisión Europea.

Además en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, el Real Decreto 430/2004, de 12 de marzo, por el que se establecen nuevas normas sobre limitación de emisiones a la atmósfera de determinados agentes contaminantes procedentes de grandes instalaciones de combustión y se fijan ciertas condiciones para el control de las emisiones a la atmósfera de las refinerías de petróleo.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente y las alegaciones formuladas, se suscribió Propuesta de Resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Papresa, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación y dada la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 7 de abril de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Papresa SA enpresak sustatutako paper-makina berriaren proiektuaren Ingurumenaren Gaineko Eraginaren aldeko Adierazpena egitea. Egunkari-papera fabrikatzeko instalazioan kokatuko da makina berria, Errenteriako udalerrian, eta Ebazpen honen 0 atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Bigarrena.– Helbide soziala Errenteriako (Gipuzkoa) udalerriko Askatasunaren Martiriak Hiribidea kaleko 6. zenbakian duen eta IFK: A-48565469 zenbakia duen Papresa SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, egunkari-papera fabrikatzeko jarduerarako eta kogenerazio-instalaziorako Errenteriako udalerrian, eta Ebazpen honen 0 atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa, 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 6.1.b kategorian, «Eguneko 20 tona paper eta kartoi baino gehiago fabrikatzeko gaitasuna duten instalazioak» eta 1.1.b kategorian, «Errekuntzako 50 MW baino potentzia termiko handiagoa duten errekuntza-instalazioak (Kogenerazio-instalazioak, galdarak, labeak, lurrunsorgailuak edo industria baten bestelako errekuntzarako hornikuntza edo instalazioa, honakoa jarduera nagusia izan edo ez)».

Errenteriako fabrikan, Papresa SA enpresak egunkari-papera eta aldizkariak fabrikatzen ditu, fardo eta ore mekaniko forman jasotako hondakin-paperetik (paperaren hondakinak) abiatuta.

Papresa SA enpresan burutzen diren prozesu nagusiak hondakin-paperari tinta-kentzea eta papera fabrikatzea dira. Horretarako, hiru paper-makina (MP4, MP5 eta MP6) eta hiru tinta-kentze lerro behar dira. Lehen lerroan (DIP1) hondakin-papera nola ore mekanikoa sartzen dira; gainerako bietan (DIP2 eta DIP3) soilik hondakin-papera erabil daiteke.

Tinta-kendutako orea fabrikatzeko prozesuak hainbat etapa ditu, eta lehena, hondakin-papera desintegratzea da. Horretarako, paperaren zatia pulper-ean edo birringailuan sartzen da, eta bertan, lurrunaren bidez berotutako prozesuaren urarekin urtzen da. Beharrezko produktu kimikoak gehitzen zaizkio, tintak bereizteko eta orea biguntzeko.

Jarraian, zatiaren lehen arazketa gertatzen da. Honen helburua tamaina zehatza duten hondakinak (grapak, plastikoak, hondarrak, eta abar) ezabatzea da, eta industria-hondakin geldo bezala prozesutik kanpo geratzen dira. Arazketa honek hiru fase ditu: arazketa orokorra (Fiberizer eta Trommel izeneko ekipoetan egiten dena), astunen arazketa (Cleaners izeneko dentsitate altuko arazgailu zentrifugoetan egiten dena) eta zuloen arazketa (Multisorters izeneko zuloen arazgailuetan egiten dena).

RESUELVO:

Primero.– Formular Declaración de Impacto Ambiental, con carácter favorable, del proyecto de nueva máquina de papel (MP6), promovido por Papresa, S.A. en su instalación de fabricación de papel prensa en el término municipal de Errenteria con las condiciones establecidas en el apartado 0de esta Resolución.

Segundo.– Conceder a Papresa, S.A con domicilio social en la calle Avenida Mártires de la Libertad 6 del término municipal de Errenteria (Gipuzkoa) y CIF: A-48565469, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de fabricación de papel prensa e instalación de cogeneración, en el término municipal de Errenteria, con las condiciones establecidas en el apartado 0 de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en las categorías 6.1.b «Instalaciones para la fabricación de papel y cartón con una capacidad de producción superior a 20 t/día» y 1.1.b «Instalaciones de combustión con una potencia térmica de combustión superior a 50 MW (Instalaciones de cogeneración, calderas, hornos, generadores de vapor o cualquier otro equipamiento o instalación de combustión existente en una industria, sea ésta o no su actividad principal)» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

Papresa, S.A. fabrica en su planta de Errenteria papel de periódico y revistas a partir de papelote (residuos de papel) adquirido en forma de fardos y pasta mecánica.

Los procesos principales que se llevan a cabo en Papresa, S.A. son el destintado del papelote y la fabricación de papel. Para ello, se dispone de tres máquinas de papel (MP4, MP5 y MP6) y tres líneas de destintado, en la primera de las cuales (DIP1) se introduce tanto papelote como pasta mecánica, mientras que las dos restantes (DIP2 y DIP3) únicamente funcionan con papelote.

El proceso de fabricación de la pasta destintada se lleva a cabo en varias etapas, la primera de las cuales consiste en la desintegración del papelote. Para ello, el recorte de papel se introduce en el pulper o triturador, donde se diluye con agua de proceso calentada con vapor y se añaden los productos químicos necesarios para separar las tintas y ablandar la pasta.

A continuación se produce la depuración primaria del recorte cuyo fin es la eliminación de residuos de un cierto tamaño (grapas, plásticos, arenas, etc.) que se retiran del proceso en forma de residuo industrial inerte. Esta depuración consta de 3 fases: depuración grosera (realizada en equipos denominadosl Fiberizer y Trommel), depuración de pesados (realizada en depuradores centrífugos de alta densidad, denominados Cleaners) y depuración de agujeros (realizada en depuradores de agujeros denominados Multisorters).

Ondoren, aurreflotazio-prozesuan, tintak bereizten dira. Tintez, gaiez, eta abarrez osatutako flotazio-lohiak zabortegian ezabatzen dira, banda-prentsatik pasatu ondoren. Ondorengo arazketa finean tamaina txikiko erreusak ezabatzen dira. Ezabatzea arazgailu zentrifugoen bidez lau etapatan (Cleaners) eta arteka-arazgailuen bidez bi etapatan (Multiscreen) gauzatzen da.

Ondoren, orea loditu behar da, eta ura ezabatuz egiten da, diskoen iragazkian % 12ko loditasuna lortu arte. Prentsaren bidez % 30eko loditasuna lortzen da.

Orea loditu ondoren, hondakin-tintak sakabanatzen dira, partikulen tamaina murriztearen bidez. Horretarako, sakabanatzeko tresnan birrindu eta berotzen da orea, eta ondoren, hidrogeno peroxidoaren bidez, orea zuritzeari ekiten zaio.

Jarraian, tintak bigarrenez bereizten dira (flotazio-ondorengoa), orea bigarrenez loditu eta bigarren zuriketa egiten da, hidrosulfito sodikoa erabiliz.

Azkenik, 700 m3-ko biltegi batean gordetzen da orea, paper-makinek elikatu ahal izateko.

Bestalde, papera fabrikatzeko prozesua, oinarrian, euren artean lotuta dauden zelulosa-zuntzezko orri jarraitua, lehorra eta trinkoa lortzean oinarritzen da, orriarentzat aurreikusitako erabilerarako egokiak diren ezaugarriak dituena (pisua edo gramajea, kolorea, distira, inpresio-onarpena, eta abar).

Paper-makinan sartu aurretik, orea prestatuz hasten da prozesua. Tinta-kentzeko lerroetan sortutako orea, hondakinekin (paper-makinan sortzen diren orri zatiak) eta diskoen iragazkiaren ustiapenetik eratorritako pastarekin nahasten da, neurri jakin batzuk erabiliz. Nahasketari eragile kimikoak gehitzen zaizkio, zuntzen flokuloak sortzen laguntzeko eta iragazkiak garbitzeko. Ondoren, diluitu egiten da.

Jarraian, oreari airea kentzen zaio hutsa aplikatuz, eta iragazki-sorta baten bidez arazten da. Fluido hau paper-makinan sartzen da, lanketa gerta dadin.

Paper-makina prozesuaren unitate nagusia eta bereizgarriena da. Bertan, orri jarraitua osatzen da, ura kentzen zaio, eta prentsatu eta lehortu egiten da. Osatzen duten ataletatik azken atalean biribiltzen da orria. Oinarrian, honako sailek osatzen dute:

– Makina-buruko kaxa: orea duoformer-era botatzen duen presio bidezko gailua. Diluzio-balbula sorta ditu barruan, eta lortu nahi den gramajearen arabera, ur gehiago edo gutxiago ematen dute.

– Duoformer-a edo fabrikazio-mahaia: elkarri lotutako zuntzen artean nahikoa ehundura trinkoa lortzea ahalbidetzen du, eta modu naturalean ura kenduz eta hutsaren laguntzaz, orri lehorra eskuratzen da. Horri esker, hurrengo sailera eraman ahal izango da.

Posteriormente, se separan las tintas en el proceso de preflotación. Los lodos de flotación compuestos por tintas, cargas, etc., son eliminados en vertedero tras su paso por la prensa de bandas. La depuración fina posterior consiste en la eliminación de rechazos de menor tamaño. Ésta se realiza mediante depuradores centrífugos en 4 etapas (Cleaners) y depuradores de ranuras en 2 etapas (Multiscreen).

A continuación se produce el espesado de la pasta mediante la eliminación de agua hasta obtener una consistencia del 12% en el filtro de discos. A través de la prensa se logra una consistencia del 30%.

Tras el espesado de la pasta, se produce la dispersión de las tintas residuales mediante la reducción del tamaño de partícula. Para ello se tritura y calienta la pasta en el dispersador para, posteriormente, proceder al blanqueo de la pasta mediante peróxido de hidrógeno.

A continuación se llevan a cabo la segunda separación de tintas (post-flotación), el segundo espesado de la pasta y el segundo blanqueo, empleando hidrosulfito sódico.

Finalmente, la pasta se almacena en un depósito de 700 m3, para ser alimentada a las máquinas de papel.

El proceso de fabricación de papel, por su parte, consiste, en esencia, en obtener una lámina continua, seca y consistente, de fibras celulósicas entrelazadas entre sí, con las características adecuadas al uso previsto para el mismo (peso o gramaje, color, brillo, aceptación de impresión, etc.).

El proceso se inicia con la preparación de la pasta antes de su introducción en la máquina de papel. La pasta producida en las líneas de destintado se mezcla con los rotos (roturas de la hoja que se producen en la máquina de papel) y la pasta proveniente del aprovechamiento del filtro de discos, en unas determinadas proporciones. A la mezcla se le añaden agentes químicos para favorecer la formación de flóculos de fibras y para la limpieza de los fieltros y, posteriormente, se diluye.

A continuación, se desairea la pasta aplicando vacío, y se depura a través de una serie de filtros. Este fluido es el que se introduce en la máquina de papel para su procesamiento.

La máquina de papel es la unidad principal y más característica del proceso. En ella se forma, desgota, prensa y seca la hoja continua de papel, que se enrolla en la última de las secciones que la integran. Está compuesta básicamente por las siguientes secciones:

– Caja de entrada: dispositivo bajo presión que lanza la pasta hacia el duoformer. Incluye un conjunto de válvulas de dilución que aportan más o menos agua en función del gramaje deseado.

– Duoformer o mesa de fabricación: permite lograr una textura suficientemente compacta de fibras entrelazadas que, por desgote natural y con ayuda de vacío, constituye una hoja con una sequedad que le permite ser transferida a la siguiente sección.

– Prentsak: paper-orria prentsatu eta hezetasuna murriztea da atal honen helburua.

– Lehortzeko saila: lerroan dauden 30 lehorgailuz osatuta dago, eta horietatik lurruna eta hutseko arrabolak dabiltza. Paper-orria ia-ia guztiz lehor geratzen da.

– Lisagailua eta biribilkagailua: berotutako kalandra bigun batez eta mandril motako biribilkagailuaz osatzen da. Kalandraren helburua paper-orriaren gainazaleko ezaugarriak hobetzea da. Mandril motako biribilkagailuak, berriz, bobina-amak fabrikatzea ahalbidetzen du.

– Bobinatzeko makinak: arrabol bikoitzeko bi bobinatzeko makina dira, eta bobina-amak diametro-bobinetan eta zabalera txikiagoetan bereizteko aukera eskaintzen dute.

– Paketatzeko makina: sail automatizatu honek bobinak paketatzea eta etiketatzea ahalbidetzen du.

Bestalde, Papresa SA enpresa gas naturaleko bi errekuntza-galdaraz osatutako energia elektrikoko eta lurruneko kogenerazio-instalazioaren jabe da. Errekuntzan sortzen den energia lurruna (70.000 y 60.000 kg/h) eta energia elektrikoa ekoizteko erabiltzen da, eta lurrun-energia kontrako presioa egiten duen turbina batean aprobetxatzen da. Ondoren, papera ekoizteko prozesu desberdinetan erabiltzen da lurruna. Energia elektrikoa bere osotasunean fabrikaren kontsumo propiora bideratzen da.

Gainera, olio termikoa berotzeko galdara txikiago bat du fabrikak, eta gas naturalaren bidez, MP4 papermakinarentzat lurruna ekoizten du.

Urtero 280.000 tona inguru egunkari-paper ekoizteko gaitasuna du.

Ekoizpen-prozesuan erabiltzen diren energia-baliabideak energia elektrikoa eta gas naturala dira. Gas naturala lurruna sortzeko erregai gisa erabiltzen da galdaretan; energia elektrikoa, berriz, fabrikaren prozesu guztietan erabiltzen da. 2005 urtean, gas naturalaren eta energia elektrikoaren kontsumoa 45.532.383 Nm3 eta 250.624 MWh izan zen, hurrenez hurren.

Bestalde, zerbitzuetara eta pertsonen kontsumora bideratutako ura Añarbeko Uren Mankomunitatearen saretik dator. Industria-prozesuan erabiltzen den ura, berriz, Oiartzun ibaitik hartzen da. 2005 urtean, uraren kontsumoa 4.103.907 m³koa izan zen.

Instalazioak sortutako efluenteak, prozesuko eta higiene-erabilerarako industria-uretan sailka daitezke, eta Añarbeko Uren Mankomunitateko kolektorera isurtzen dira. Aldez aurretik, flotazio eta sedimentazio prozesu fisiko-kimikoen bidez, eta lohiak lodituz eta deshidratatuz, arazten dira industria-urak. Euri-urak, aldiz, Oiartzun ibaira isurtzen dira, hiru isurtze-punturen bidez.

Halaber, instalazioak atmosferara bideratutako bi isurtze-foku ditu. Lehena, lurruna sortzen duten gal-

– Prensas: sección que tiene por objeto prensar la hoja de papel e ir disminuyendo su humedad.

– Sequería: compuesta por 30 secadores en línea por los que circula vapor y rodillos de vacío. La hoja de papel sale prácticamente seca.

– Lisa y enrolladora: constituida por una calandra blanda calentada cuya finalidad es realizar una mejora de las características superficiales de la hoja de papel, y de una enrolladora tipo mandril que permite la fabricación de bobinas madre.

– Bobinadoras: dos bobinadoras de doble rodillo que permiten dividir las bobinas madres en bobinas de diámetro y anchos menores.

– Embaladora: sección automatizada que permite el embalado y etiquetado de las bobinas.

Por otro lado, Papresa, S.A. dispone de una instalación de cogeneración de energía eléctrica y vapor formada por dos calderas de combustión de gas natural. La energía generada en la combustión se emplea para la producción de vapor (70.000 y 60.000 kg/h) y energía eléctrica aprovechando la energía del vapor en una turbina de contrapresión. Posteriormente el vapor se emplea en los distintos procesos de producción de papel. La energía eléctrica se destina íntegramente al propio consumo en la planta.

Además, la planta dispone de una caldera menor, de calentamiento de aceite térmico, para producción de vapor a partir de gas natural, para el servicio de la máquina de papel MP4.

La capacidad de producción anual es de unas 280.000 t de papel prensa.

Los recursos energéticos utilizados para el proceso productivo son energía eléctrica y gas natural. El gas natural se emplea como combustible en las calderas para generar vapor, mientras que la energía eléctrica se emplea en todos los procesos de la fábrica. El consumo de gas natural y energía eléctrica en el año 2005 ascendió a 45.532.383 Nm3 y 250.624 MWh, respectivamente.

Por otro lado, el agua destinada a los servicios y consumo humano proviene de la red de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, mientras que el agua empleada en el proceso industrial es captada del río Oiartzun. El consumo de agua en el año 2005 fue de 4.103.907 m³.

Los efluentes generados en la planta pueden clasificarse en aguas industriales de proceso y de uso higiénico, que son vertidas al colector de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe. Previamente, las aguas industriales son depuradas mediante procesos fisico-químicos de flotación y sedimentación, con espesado y deshidratación de fangos. Las aguas pluviales, por su parte, son vertidas a la ría del Oiartzun mediante tres puntos de vertido.

Asimismo, la instalación cuenta con dos focos de emisión a la atmósfera correspondientes el primero de

daretatik eratorritako gasen hustuketari dagokio, eta bigarrena, olio termikoaren galdarari dagokio.

Instalazioak eragiten dituen hondakin adierazgarrienak honako hauek dira: batetik, tinta-kentze prozesuetatik sortutako lohi eta erreusak, eta bestetik, hondakinuren arazketaren ondorioz sortutako lohiak. Hondakin arriskutsuei dagokienez, mantentze-lanetatik sortutako olio erabilia da adierazgarriena.

2001eko abenduko «Reference Document on Best Available Techniques in the Pulp and Paper Industry» eta 2006ko uztaileko «Reference Document on Best Available Techniques for Large Combustión Plants» Europako BREF-ek jasotzen dituzten teknika erabilgarri onenen artean, honako hauek azpimarra daitezke: uraren kontsumoa murriztera bideratutakoak (horien artean, prozesu-urak birziklatzea eta uraren kudeaketa-sistema bat ezartzea, zirkuituak ixtearen ondorioz sortutako mugak kontuan hartuta) eta ezbeharrez egindako isurketen maiztasuna eta ondorioak murrizteko neurriak ezartzen dituztenak. Era berean, Papresa SA enpresak lehen mailako tratamendu-sistema bat du, hondakin-urak isurtzeari lotutako eragina gutxitzeko. Honela, isuri aurretik, industria-urak bertara bideratzen dira. Airera egindako isurketak gutxitzeari bideratutako Teknika Erabilgarri Egokienei dagokienez, energetikoki eraginkorrak diren teknologiak erabiltzea eta galdara laguntzaileen errekuntza-baldintzak kontrolatzea bezalako lehen mailako neurriak azpimarratu behar dira. Halaber, orea klororik gabe zuritzeko sistemak ditu Papresa SA enpresak. Horretarako, hidrogeno peroxidoa eta hidrosulfito sodikoa erabiltzen ditu.

Hirugarrena.– Papresa SA enpresak Errenteriako udalerrian sustatutako egunkari-papera fabrikatzeko jarduera ustiatzeko eta errekuntza-instalaziorako ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A.– Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Papresa SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B.– Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Papresa SA instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

ellos a la evacuación de los gases procedentes de las calderas de generación de vapor y el segundo a la caldera de aceite térmico.

Los residuos más significativos generados en la instalación son los lodos y los rechazos procededentes de los procesos de destintado, por una parte, y los lodos procedentes de la depuración de aguas residuales, por otra. En cuanto a residuos peligrosos, el más significativo es el aceite usado procedente de operaciones de mantenimiento.

